



Azpeitiko Udala

OLATZ EIZAGIRRE ORBEGOZO, AZPEITIKO UDALEKO IDAZKARIAK.

ZIURTATZEN DUT: Udalbatza osoak 2024ko uztailaren 2an egindako bilkuran honako hau dioen erabakia hartu zuela:

AZPEITIKO UDALERRIKO ZARATA MAPARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA.

Euskal herriko Erkidegoan zarataren kontaminazioa arautzeko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak agindutakoa jarraituz, Azpeitiko Udalerriko Zarata mapa egin da.

Legeak agindutako kontratazio prozedura jarraituz dokumentu teknikoa AAC acustica + luminica enpresak egin du, eta Udalaren Estrategia eta Hirigintza Batzordeak 2024ko ekainaren 27an egindako bilkuran irizpidetu du.

213/2012 Dekretuak 10.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriei zarataren mapa onartzeko betebeharra ezartzen die, eta baita ondoren akzio plan bat ere. Hau da, zarataren mapa osatu eta tramitatu ondoren, eta honen emaitzak kontuan izanik akzio plan bat diseinatu behar da (Udalak 5 urte izango ditu akzio plangintza hau bideratzeko). Horrez gain, zarataren inguruan udalak dituen udal-agintarauak ere zarata maparen emaitzetara egokitu behar dira. Zarata mapak 2023. Urteko egoera islatzen du, nahiz eta errepideetako trafikorako 2022ko datuak erabili diren, eta hurrengo zarata mapa partzialek osatzen dute: kaleen trafikoaren, errepideen trafikoaren, trenbidearen, industriaren eta ingeeneko guztiko zarata-mapa.

Legearen 6. artikulua udalen gain dauden eskumenak jaso ditu, eta alor honetan administrazioen koordinazioari garrantzia eman dio. Gure kasuan Udalbatzak 2013ko irailaren 17an onartu zuen Plangintza Orokorrak jasotako erizpideak kontuan izatea derrigorrezkoa da, Plan Orokorren edukina alor honetan eskumena duten administrazioek baloratu zutelako, eta bere txostena eman zutelako.

Zarataren mapak herriko zona ezberdinetan izan behar den zarataren maila mugatzen du, eta Udalak akzio planaren bidez legeko mailak lortzeko neurriak hartu behar ditu. Ohartarazi nahi da legeak maparen barruan sartzen diren zaratak zerrendatu dituela (trafikoak, industriak, trenak eta aeroportuak), eta zarata sortzen duten beste foko batzuk (zenbait jarduerak, aisialdia...) udal agintarauen bidez bideratu behar direla.

Tramitazioari dagokionez legearen 12. artikulua dio zarataren mapa onartzerako hilabeteko jendaurreko entzunaldia egin behar dela. Beraz, Udalbatzak HASIERAKO onarpena eman eta gero, dokumentua eta espedientea jendaurrean jarriko du erakusgai hilabetez bai GAOn, bai EHAOn eta baita Udalaren egoitza elektronikoa ere. Epe hori igaro ondoren, aurkeztu diren alegazioak erantzun, eta zarataren mapa Eusko Jaurlaritzara eta Gipuzkoako Foru Aldundira bidali behar da.

Hori horrela izanik, Udalbatzako kideek aho batez hartutako erabakiarekin onartu du:

1.- ZARATAREN MAPA AAC acustica + luminica enpresak egin duen Azpeitiko Udalerriko Zarataren mapari HASIERAKO onarpena ematea (Zarataren mapak bi dokumentu ditu: batetik txosten teknikoa, eta bestetik, laburpen dokumentua).

2.- Euskal herriko Erkidegoan zarataren kontaminazioa arautzeko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 13. artikulua dioenari jarraituz akordioaren eta dokumentua hilabetez jendarean egongo da erakusgai, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Denbora horretan edozein pertsona fisiko edo juridikok dokumentazioa eta jarraitutako prozedura aztertu eta alegazioak aurkeztu ahal izango du.

“Azpeitiko udalerriko zarata-mapa” dokumentua aztertu ahal izango da Azpeitiko Udaleko Hirigintza Sailean, 08:00etatik 14:00etara, eta Udalaren webgunean, Hirigintza eta Ingurumen Atalean: www.azpeitia.eus

Eta horrela jasoa gera dadin eta, alkate udalburuaren oniritziarekin ziurtagiri hau eman dut, Azpeitian, bi mila eta hogeita lauko uztailaren hiruan.

O.E.
ALKATEA,

